



**RIO DE JANEIRO-KO MENENGAGE-REN
*ADIERAZPENA***

**Genero Berdintasuna Atxikitzerantz
Gizonak eta Mutikoak Ekartzeko
Sinposio Globala.**

**Rio de Janeiro, 2009-ko martxoaren
29-tik apirilaren 3-ra**

LEHENENGO ZATIA: AURKEZPENA

Laurogei herrialdeetatik gatoz. Gizon eta emakumeak gaituzu, gazte eta heldu; munduko kultur eta hizkuntza aniztasuna ordezkatzeko ditugu eta elkarrekin lanean ari gara begirune osoz gizarte eta genero zuzentzari dagozkion helburu partekatuetan. Erkidego mailako antolakuntzetatik, hezkuntza eta erlijio erakundeetatik gatoz; gobernuen, gobernuen kanpoko erakundeen eta Nazio Batuen ordezkariak gaituzu.

Batzen gaituena da emakumeen eta neskatoen bizitzak suntsitzen jarraitzen duten injustiziekiko sumindura eta baita mutikoengan eta gizonengan jartzen ditugun auto-eskaera suntsikorrekiko samina. Are gehiago, hemen bildu arazi gaituzte itxaropen sentsazio indartsuak, igurikapenek eta aukerek zeren eta ikusi baititugu gizonen eta mutilen aldatzeko gaitasuna eta zaintzeko, gartxuki maitatzeko eta denon zuzentzaren alde lan egiteko grina. Jakin, badakigu eta berretsi egiten dugu gionezkoak beren kideez, beren buruaz eta beren seme-alabez arduratzeko gai direla.

Emakumeen eta nesken aurka gionezkoek burutu indarkeria izurrite honek, emakumeak bigarren mailako hiritartzat hartzeak, gionezkoen etengabeko nagusikeriak ekonomian politikan, gizarte eta kultur erakundeetan ...iraindu egiten gaituzte. Badakigu ere emakumeen artean, beraiek dagozkion gizarte klasea dela eta, erlijioa dela eta, hizkuntza edota gorputz ezberdintasunak, arbasoak ala sexu orientabidea direla eta gehiago pairatu behar izaten dutenak badaudela.

Aitortu egiten dugu emakume eta neskato gehiegirengan ezarri kaltea gionezkoen eskutik , eta era berean ezagutzen ditugu gure gizarteek definitu eta mutikoei eta gionezkoek ezartzen dieten botere maskulinoaren kostuak, baita mutikoak "gizon" izan daitezten nola gizarteratuak izan ohi diren ere. Gizon gazte eta mutiko gehiegi sakrifikatuak izan ohi dira eta gudarako gaia- tzat hartuak botere politikoa, ekonomikoa eta erlijioso dituzten gionezkoek erabakitako gudetan, konkistatu eta menderatu besterik nahi ez duten gionezko horien esku. Gizon askok beren buruari kalte latza ezartzen diote buru eta gorputz zaintzarako beharrak ukatzen dituztelako edo zerbitzuok behar izaten dituztenean eskura ez dituztelako.

Gionezko askok sufritu egiten du gionezkoen botereak ez duelako bakarrik esan nahi emakumeen menperatzea baizik eta beste gionezko batzuk mendean hartzea ere. Gizon gehiegi eta emakume gehiegi bizi da muturreko txirotasunean; gaizki tratatuak eta giza baldintzarik gabeko lanetara behartuak izan ohi dira. Gizon ugari orbain sakonik darama gizontasun ezinezko horren eskaera mailan egoten saiatzeagatik eta kontsolamendua bilatzen dute indarkeriazko jokabideetan, nor bere buruaren suntsipenean, alkoholetan edota drogetan. Gizon gehiegi labela ezarri eta zigortuak izaten dira beste gizon batzuk maite, desiratu eta beraiekin sexua edukitze soilagatik.

Errealitate global hauen aurrean gionezkoen eta emakumezkoen aurkako injustizia, mutikoen eta neskatoen aurkako injustizia deuseztatzeko konpromisoa berresten dugu, baita mundu hobeagoa sortzeko bitarteko eta aukerak eskaintzeko konpromisoa ere bai. Hemen gaude gionezkoek eta emakumezkoek bazterketa eta indarkeria salatzen elkarrekin lan egin behar dutela sinesten dugulako.

Berretsi ere egiten dugu gizonetzkoak eta mutikoak genero zuzentzan lanean jartzea posiblea dela eta egun gertatzen ari den zerbait dela. Gobernuz kanpoko erakundeak, kanpainak eta gobernuak gero eta zuzenago murgilarazten ari dira ehunka mila gizonetzko munduan zehar. Gizonak eta mutikoak entzun ditzakegu ahotsa ozen erabilirik indarkeriaren aurka, sexu ziurragoa praktikatu, eta emakumeen eta nesken ugaltze eskubideak euskarrituz. Haurrak eta ume txikiak zaintzeko erronkei eusten dieten gizonetzkoak dakuskigu.

Baiezatu nahi dugu ere gizonetzkoekin eta mutikoekin lan egitea emakumeen etengabeko mugimendutik datorrela eta berau eta emakumeen lidergoa zein lan aitzindaria errespetatu egiten dituela. Emakumeen ahalduntzaren eta eskubideen aldeko borroka amaigabeekin bat egiten dugu. Emakumeen eskubideen aldeko erakundeekin lan egiteak eskatzen du gizonetzkoen jokabideak eta praktikak aldatzea eta gizonen eta emakumeen arteko harremanen desoreka eraldatzea, bai sendi harremanetan, bai komunitate harremanetan, bai erakunde eta nazio harremanetan. Are gehiago, emakumeen mugimenduaren garrantzia onartzen dugu gizonetzkoen hobetoagoak eta gizatiarragoak izaten lagundu dien ikuspegitik.

Aurreko hamarkadan Genero berdintasuna atxikitzea gizonak eta mutikoak erakartzeko Sinposio Globalerako 450 delegatuen artean askoren eguneroko lana izan da gizonetzkoak eta mutilak adoretzea gizontasun bortitzaren bertsio desberdintzaileak zalantzan jartzera. Lan honek ez du sustatu nahi talde erruduntasun izpiriturik ez eta talde-salaketarenik ere. Aitzitik, gizonak eta mutilak adoretu nahi ditugu gizontasun eredu osasungarriagoak eta ez bortitzak bereganatzera, hala nola, genero zuzentza erdiesteko emakumeekin eta neskekin batera egin beharreko lana hartzera.

Deitu nahi ditugu ere gurasoak, hezleak, irakasleak, komunitate buruak, komunikabideak eta enpresak, gobernuak, GKE-ak, erlijio erakundeak, Nazio Batuak ... politika eta beharrezkoak diren diru baliabideak mugi ditzaten genero berdintasuna atxikitzeko, gizonekin eta mutikoekin egin beharreko lanaren eragina areagotzeko.

Agerikoa bada:

Genero berdintasuna atxikitzea gizonak eta mutikoak erakartzeko ekimen eta programa berriak frogatzen ari zaizkigu gizonetzkoek bai alda ditzaketela beren praktika eta genero jarrerak. Programa eta prozedura eginkorrek gizonetzkoak eta mutikoak eraman dituzte indarkeriaren aurkako eta genero berdintasunaren aldeko konpromisoa hartzera, euren bizitzetan zein komunitateetan. Ekimen hauek ez dute soilik laguntzen maskulinitate arriskutsuak eraisten, baita laguntzen dute ere berdintasun zaleagoak diren maskulinitateak berreraikitzen. Ikerketa globalek gero eta argiago frogatzen dute gizonekin eta mutikoekin lan egiteak indarkeria murriz dezakeela, harremanak hobetu, emakumeen mugimenduaren lana eta lan feminista indartu, emakumeen, gizonetzkoen, nesken eta mutikoen osasuna hobetu eta aldaketa hau bizkor daitekeela, ongi diseinatu esku-hartzeen bidez.

Baliabideak:

Genero zuzentza lortzera bideratu baliabideak ugaltzea beharra dago. Uste dugu agerikoa dela genero azpiko bereizkeriak aldatzeko programa integratuetan eta proiektu hurbiltzaileetan dirua inbertitzea eginkorra dela baita emakumeak, neskak, gizonak eta mutilak hauetan inplikatzea ere. Gobernuari dei egiten diegu gero eta diru partida gehiago erabil ditzaten emakumeei zein gizonei genero injustiziek eragin kalteak arintzeko eta horrelako emaitza kaltegarriak sortzen dituzten genero bereizkeriak eraldatzeko. Betitik emakumeenak eta neskenak izan diren zereginetan gizonak eta mutilak inplikatzeak bitarteko gehiago eskatzen duela eta ez dagoeneko urriak diren bitartekoak eraldi.

Nazio Batuen Nazioarteko Konpromisoak:

Nazio Batuen Erakundearen eta beste nazioarteko tratatuen bidez munduko nazioek konpromisoa hartu zuten genero berdintasuna atxikitzeko gizonak eta mutikoak erakartzeko. Politikak diseinatzen dituzten pertsonen ardura da konpromisook aurrera eramatea eta gizonezkoekin lan egiteari begira jarritako politika eta programen garatzea, sustatzea eta ebaluatzea. Konpromisook gizarte eragileei ematen dizkiete behar diren argudioak haiek martxan jartzeko.

Nazioarteko konpromisook barnebiltzen dituzte:

*Populazio eta Garapenari buruzko nazioarteko Konferentziak, 1994.ean. berresten du genero berdintasuna bizitzaren alor guztietan sustatzeko beharra, bai sendi mailan bai komunitate mailan eta, era berean, gizonezkoen adre eman eta ahalbidetu sexu eta ugaltze jokabideen eta gizarte eta sendi rolen ardura hartzera. 1

*Gizarte Garapenerako Mundu Ganberaren Ekintza Programak (1995ean) 2000.ean egindako oharrean arreta berezia jartzen du gizonezkoek dituzten erantzukizunean eta roletan emakumeekin sendiaren, etxeko eta lanbideko ardurak partekatzerakoan.2

*Beijingo Ekintza Plataformak (1995ean) erantzukizun partekatuaren printzipioa edo araua birformulatu zuen eta baieztatu emakumeen aferak bakarrik hartu daitezkeela "gizonezkoekin elkarlanean". 3

*HIV/IHESA-ren Asanblada Orokorraren Saio Bereziak (2001) aitortu zuen genero jarrerak eta estereotipoak eta genero berdintasunak HIV/IHESA-rekin zuten harremana eta honi denari aurre egin beharra; baita gizonezkoen eta mutikoen parte hartzea honetan ere.4

*Nazio Batuetako Emakumeen Status-eko Batzordeak, 2004-eko saioan (eta 2008-koan) erabaki zuen gobernuak, Nazio Batuen sistemaren erakundeak eta beste finantza erakunde batzuk deitzea :

Gizonak bultzatzeko HIV/IHESA-ren trataera eta aurrezaintzan parte hartzea.
Programak sustatzeko gizonezkoek eta mutikoek sexu praktika ziurak eta arduratsuak garatzera; gizonak eta mutilak euskarrizera genero indarkeria aurrezain dezaten; ikastetxeetan genero berdintasuna azkartzeko programak burutzera eta lanaren eta sendiaren erantzukizunen berradiskidetzea sustatzera.

Genero bereizkerietan gizarte aldaketa eraldagarriak eta sostengarriak lortzeko esku-hartze isolatu, epe laburreko eta maila txikietatik haratago jo behar dugu eta ahalegin guztiak bildu eskala handiko ekintza sistemikoetara.

Konpromisook betetzeko garaia dugu.

BIGARREN ZATIA: GAI ZEHATZAK ETA EKINTZA ESPARRUAK

Bestalde, genero zuzentza atxikitzeko gizonak eta mutikoak ekartzeko ekimenetara dei egiten dugu alor hauetan ere bai:

Emakumeenganako Indarkeria:

Emakumeek eta neskek gizon batzuen eskutik indarkeria izurritea jasaten dute: beren senarren ala bizikideen gorputz indarkeria, jazarpen sexuala (matrimonio barruko bortxaketa barne) emakumeen eta nesken trata, feminizidioa, bortxaketa guda armatza, lantokian sexu jazarpena, genitalen ebaketa... Denbora luzeegiaren zehar emakumeen eta nesken aurkako indarkeria (gorputz indarkeria, psikologikoa eta sexuala barne) ikusia izan da "emakumeen beraien arazotzat" eta ezkutuan eduki izan dira, ezabatuak bezala, langai pribatua bailitzan, emakumeen mugimenduen eta feministen ardura bailitzan. Egitura patriarkalek zigorgabeko egoera honi eusten diote. Gizonezkoen zein mutilen arduratze eta esku hartzea ezinbesteko ditugu gizarte eraldaketa honetan emakumeentzako eta neskentzako indarkeriarik gabeko bizitzak lortzeko.

Mutilenganako eta Neskenganako Indarkeria

Neskek eta mutilek abusu larriak pairatzen dituzte (gorputz zigor iraingarri eta lotsagarriak) etxean, komunitatean, ikastetxean eta beraien babestu behar litzuketen erakundeetan. Indarkeria hau askotan genero txantiloietatik jarrotzen da; testuinguru batzuetan mutilak dira beren gurasoengandik gorputz indarkeria jasotzeko joera handiagoa aurkezten dutenak eta neskek sexu indarkeria eta indarkeria emozionala.

Umetan indarkeria hau jasan izana ala bere lekuko izatea da mutikoak eta gizonak indarkeria hau beranduago ekoiztera, errepikatuzera eramaten dituen, lagun minen aurka. Honek eskatzen digu bizi-ziklo moduko fokapena indarkeria murrizteko eta neskei zein mutilei adre ematea sendi-indarkeria zikloak hausteko.

Gizonen eta mutilen arteko indarkeria

Emakumeenganako indarkeria gure agendan lehentasuna baldin bada ere, gizonen eta mutilen arteko indarkeria era hainbat aztertu beharra daukagu. Hauek izaten dira armadun gatazkak, lagun taldekoena, eskola jazarpena (bullying-a) eta indarkeria homofobikoa. Gizonezkoek eta mutikoek emakumeek eta neskek baino homizidio kopuru handiagoak jasaten dituzte munduaren zehar. Heriotza hauek- gehienak su armek eraginak- aurrezain daitezke errazki eta zuzenki lotuta daude arriskuak, borrokak, menperatze ariketak ... garatzen dituzten gizonen eta mutikoen gizarteratzeko erarekin. Indarkeria kulturak eta arma indarkeria kulturak aldatu nahi

izateak eskatzen digu gizonak eta mutikoek ulertu beharra daukatela gizontasunetik eratorritzen diren bertsoak sarritan indarkeriaren arabera zehazten direla.

Indarkeria Armadun gatazketan

Sexuaren araberako erreklutatzea erabiltzen duten herrialdeetan edo gizonentzako emakumeentzako baino zerbitzu militarra luzeagoa eskatzen dutenetan gizon gazteak hartuak dira gizarte hondakinak bailiran eta heriotzara bidaliak kopuru handitan. Gatazketan zibilei nazioarteko legediak onartu eskubideak ukatzen dizkieten militarrek onartu eta sustatu egiten dute sexu indarkeria guda armatzat, honela maskulinitate eredu pribilegiatuak bultzatzen dituzte, indarkeriari uko egiten dioten gizonezkoenganako gaitzespena, estigmatizatzea eta indarkeria homofobikoa erraztuz. Neskak eta mutilak armadun gatazketara gero eta maizago eramanak izan ohi dira bai biktimak zein erasotzaileak. Nazioarteko gobernuei dei egin nahi diegu honako erabakiak errespetatu ditzaten, Segurtasun Kontseiluaren erabakiak: 1308, 1325, 1612 eta 1820 eta lagun dezaten genero indarkeria mota oro – baita armadun gatazka garaian ere- eraginkorki deuseztatzeko.

Generoa eta Diru Politika Globala

Gaur eguneko diru politika globalaren joerak nabarmen eragin egiten ditu genero identitateak. Lehia, kontsumoa, pilatzeko joera erasokorra eta botere berrespena bezalako baloreek indartzen dituzte menderatze praktikak eta indarkeriaren erabilpena. Egungo eredu ekonomiko nagusiek zaurgarritasun ekonomikoaren areagotzea ekarri dute, mantenua irabazteko aukerak larriki murriztu dira eta. Azken hogeitun urteetan emakumeak etxetik kanpoko lan aktibora etorri diren arren gizonezkoak dira "etxerako hornitzaile" -tzat kontsideratuak izaten direnak, hornitzaileak. Igurikapen garai hau betetzeko gai ez diren gizonezko ugari estresa eta buru gaixotasunak garatu ohi ditu, sustantziak eta alkoholaren irenstea barne. Estres ekonomikoa ere lotua dago emakumeenganako eta neskeenganako gizonezkoek darabilten indarkeriarekin. Gertaera honen ulertzea zorrotzagoa behar dugu eta auzi hauek nazioarteko foro ekonomikoen agendara sartu beharra daukagu.

Gizonezkoak eta mutilak Zaindariak:

Munduan nonahi, genero arauak indartzen dute emakumeek eta neskek zaintzaren ardura onar dezaten: etxe barruko lanak, haurren hazkuntza, eta gaixoen eta zahartuen zaintza. Honek emakumei eta neskei sarritan eragozten die beste oinarrizko eskubide batzuetarako sarbidea: osasuna, hezkuntza, lanbidea eta politikan esku hartze osoa. Hau zuzentzeak zera dakar, gobernuek gizarte zibilaren antolakuntzek, N.B. -etako erakundeek, sektore pribatuak eta finantza-erakundeek martxan jartzea genero arauak eraldatuko dituzten estrategiak eta baita gizonezkoak emakumeekin zaintzen arduraren gozamina eta zama partekatuzera bultzatuko dituzten estrategiak,

beren aitatasun gaitasuna eta haurren zaintzaren emaileen lana barne. Honek eskatuko du diru partida handiak sektore publikoaren zerbitzuetan zaintzen zama osoa murrizteko, batik bat, HIV/IHESA-ren eta gaixotasun kroniko batzuen kasuetan.

Sexu eta Genero Aniztasuna eta Sexu Eskubideak:

Sexu orientabideak, identitateak eta genero harremanak direla eta aniztasun handia dago gizon eta mutilen artean. Gizon gehiegiri labela ezartzen zaio beste gizon batzuk maite dituelako, edota beste gizon batzuk desiratu ala beste gizonezko batzuekin sexua praktikatzan duelako; genero arauetatik kanpoko identitateak dituztenekin gauza bera gertatzen da. Mundu osoan zehar sexu injustizia, gizarte bazterketa eta zapalkuntza txantilo formalek zein informalek murrizten dute gizonezkoen eta mutilen giza eskubideetarako sarbidea, osasun zerbitzuetarako, eskubidea pertsonal segurtasunerako, hala nola beraien harreman mamien ezagutza eta berrespena. Maskulinitatearen eraikuntzak testuinguru askotan oinarrituak daude erasokortasun giro batean, patriarkal praktika nagusiak kontraesaten dituzten genero-sexu jokabideenganako, indarkeria heterosexistak kontrolaturik ala mendea hartuak direlarik. Gizonak eta mutikoak erakarri nahi dituzten programek aitortu eta ezagutu behar dituzte gizonezkoen eta mutilen sexu aniztasuna eta euskarritu edozein orientabide duen edozein gizonen eskubide baikor sexu gozamenerako eta ongi-izaterako.

Gizonezkoen eta mutilen genero Zaurgarritasunak eta Osasun Beharrianak:

Gure munduan gizonezkoak eta mutilak emakumezkoak eta neskek baino lehenago hiltzen zaizkigu aurre zain litezkeen gaixotasunek jota, istripuek eta indarkeriak jota. Emakumezkoak eragiten dituzten gaixotasun berberetan gizonezkoek hilkortasun tasa altuagoa erakusten dute. Mutikoen eta gizon gazteen artean osasuna sustatu beharra daukagu eta beraientzat zein beren senideentzat osasuntsuak diren jarrerak har ditzaten ahalbidetu. Honetaz gain gizonezkoen eta mutikoen bizipen pertsonal eta emozionalak aintzat hartu beharra dago beren arazo sustraiak hobeki ulertzeko, besteak beste, indarkeria, buru-botatzea, drogen abusua, istripuak eta osasuna sustatzeko zein aurrezaintzarako jarrera eskasa. Generoari erantzungo dioten buru osasun programa eta zerbitzu orokorrak beharrezkoak dira, soziokulturalki sentiberak, arazo hauek aurre zaindu eta artatzeko komunitate mailan, genero ikuspegia barnebilduko dituen osasun zerbitzu egokiak lortzeko, emakumeentzat, neskeentzat, gizonentzat eta mutilentzat.

Sexu ustiapena:

Gizonezko batzuk darabilten sexu indarkeria bai emakume eta nesken ustiapena bai gizonezkoen eta mutilen ustiapena jasaten dituzten gizarte arauen emaitza da. Emakume, neska, gizon eta mutilak objektu bailiran bezala tratatzeak eta beren

merkantilizazioak sexu jokabide bortitzak eta hertsakorrak naturalizatzen dituzte. Indarkeria eta merkantilizazioa deuseztatzeak eskatzen ditu global mailatik lokal mailara doazen estrategia holistikoak, gizonak eta mutilak erakarriko dituztenak, gizonezkoen menderatze jarrerei aurre egiteko eta gizaki denak begirunez eta duintasunez hartzeko. Eztabaida honetan internetaren erabilpena sexu ustiaketan ere aintzat hartu beharra daukagu eta gizonak eta mutilak ustiaketa era berri hau iraultzera eramango dituzten bideak aurkitzeko.

Sexu eta Ugaltze Osasunaren Eskubideak:

Sexu eta ugaltze osasunaren eskubideak (SUOE) emakumeen domeinu gisa zabalki ezagutuak dira, emakumeak eta neskek beren sexu osasunaren zein beren komunitatekoaren arduradun bezala utziak. Gizonezkoek maiz ez dituzte sexu ugaltze eta osasun zerbitzuok erabiltzen edo ez dute sarbiderik izaten nahiz eta beren jokabideek arrisku larriak ekarri beraientzat zein beren bikoteentzat. Behar-beharrezkoa da gizonezkoekin eta mutikoekin lan egitea beraiek euskarritzeko eta sustatzeko emakumeen, nesken, gizonezkoen eta mutilen SUOE-en erabilpena eta osasun zerbitzuek genero gaiak aintzat hartzeko eta genero berdintasunari atxikitzeko. Zerbitzuok gizonezkoek lagundu behar liekete sexu eskubide eta sexu ugaltze eta beharrezkoak antzematen eta artatzen. <honek behartzen gaitu sexu eskubideei buruzko eztabaidan gehiago hausnartzen eta fokapen baikorra hartzen guztion sexualitatea giza eskubideetan oinarritua egon dadin.

VIH eta IHESA

Munduan barna komunitateak suntsitzen jarraitzen dute VIH-ek eta IHESA-k. Berdintasun ezak eta genero arau zurronek izurrite honen hedapena eta talka larriagotzen dituzte emakumeentzat eta neskentzat zail bihurtuz sexu harremanen negoziaketa eta IHESA-rekin lotu gaixoen zaintzaz zamatur. Osasun zerbitzuetara jotzeko ideia ahuldade zeinua da honelako edukiak lotzen dituen maskulinitaterako: gizontasuna eta sexu bikotearen mendetasuna, gizontasuna eta bikote anitza aurkitzea, arriskuak hartzeko joera eta honek guztiak errazten eta areagotzen du gizonezkoek birusa harrapatzeko eta hedatzeko aukera. "VIH eta IHESA-ri buruzko Nazio Batuen Asanblada Orokorraren Saio Bereziatan" eta bestelako IHESA-rako Plan Nazionala hartu konpromisoen arabera, gobernuak, NBE-ren erakundeek eta gizarte zibilak martxan jarri behar dituzte agerikoan oinarrituriko berehalako estrategiak honetan aurrezaintzeko, artatzeko, sendatzeko eta laguntzeko, VIHren eta IHESaren genero dimentsioak aintzat hartzeko, VIH eta IHESAren pertsonen beharrik kontuan hartzeko, tratamendurako sarbidea ziurtatzeko, labeli eta bazterketei aurre egiteko eta arrisku jokabideen murriztean gizonezkoak euskarritzeko hala nola VIH-ren zerbitzuetara errazago eta maizago hurbiltzeko.

Gazteria eta Hezkuntza Sektorea

Sinposioan parte hartu zuten pertsona gazteek baieztatzen dute genero berdintasuna maila guztietan sustatzen duten programetan goiz eta ekinkor inplikatzeko sortuko duela neskek eta mutilak berdinkide kontsideratzeko, gizaki gisara dagozkien eskubideez ohartzeko eta beren bizitzaren alor guztietara eramateko giro egokia: matrimonio goiztiarraren aurrezaintzarako hezkuntzaz lan duinetarako eskubideaz, harreman berdinkideetan bizitzeko eskubideaz eta indarkeriarik gabeko bizitzak edukitzeko eskubideaz. Genero zuzentzari dagozkion aferek eskola kurrikulumetan sartuak behar dute izan hasiera-hasieratik, genero arauari buruzko hausnarketa kritikodun fokapen batetik abiatu.

Aniztasunaren Ezagutza

Genero berdintasunerantz eta genero harremanetarantz zuzendu eztabaidak, ekintzek eta politikek eragin handiagoa edukiko dute eta eraginkorragoak izango dira -seguru gara- gure arteko bereizkerien – arraza, etnia, adina, sexu aniztasuna, generoa, erlijioa, gaitasun fisikoak eta klasea- ezagutza eta ospatzea kontuan hartzen dituztenean.

Ingurumena

Maskulinitate hegemonikoen emaitza bat izan da izadia mendean hartzeko saiakera, klima aldaketa hondagarriak eta ingurumenaren degradazioa esaterako. Gure helburua genero zuzentzaz haratago doa esateko indarkeriaren arabera ala zaintzarik gabeko gizonezkoen arabera eginiko mundu bat bere buruaren suntsitzailea dela. Gizarteak arlo guztietan ekin beharra dauka gizarte injustiziaren eta diru boterearen islarik krudelena gerarazteko.

Agerikoa Indartuz

Bere biziko garrantzia du agerikoa denari heltzen jarraitzea genero eraldaketarako programen eraginkortasunari dagokionean talka-ebaluaketa ikerketen eta programen bidez, kultura testuinguru bakoitzean zein diren estrategiarik arrakastatsuenak zehazteko. Arrakasta adierazleek eduki behar lukete behaketa berezia genero arauak eta jarrerak aldatu diren ala ez. Honetaz gain, programek eta ebaluazio politikek aztertu behar lituzkete gizonezkoen eta emakumezkoen zuzenduriko genero fokapena duten programen eta politiken emaitzak.

HIRUGARREN ZATIA: EKINTZARAKO DEIA

1. Jende orok beren komunitateetan eta sendiengan sustatu behar luke ekintzarako dei hau eta gizarte eragileak izan genero berdintasuna bultzatzeko. Banakoek eta taldeek indar egiten jarraitu behar dute gobernuengan eta bere buruzagiengan dagokien erantzukizuna har dezaten.
2. Komunitate elkarteek jarraitu behar dute lan berriztatzailean genero eta beste desoreken statusari aurre egiteko eta aldaketarako gizarte eredu bezala aritzeko.
3. Gobernu kanpoko erakundeek , erlijio erakundeak barne, beren komunitateen beharrezanetan, eskubideetan eta igurikapenetan oinarritu programak, esku-hartzeak eta zerbitzuak garatu eta eraiki behar lituzkete, txosten honekiko erantzule izanik eta beronen helburuak islaturik.
4. Genero indarkerian, genero berdintasunean edo haurrenganako indarkeria auzietan lan egiten duten nazioarteko gobernu kanpoko erakundeek elkartu behar lituzkete beren asmoetan mutikoak eta gizonezkoak emakumeekin eta neskekin; nazioarteko erakundeei lagundu behar liekete lan sareak erraztuz, gaitasun eraikitzaileaz hornituz,
5. euskarri teknikoaz eta gobernuekin elkar lanean aritu behar lukete genero berdintasuna eta jokabide ez bortitzak sustatzen dituzten politika eta estrategiak garatzen, baita nazioarteko eta Europar Batasunaren konpromisoen jarraipenean.
6. Gobernuak dagozkien betebeharren eta nazioarteko konpromisoen arabera jokatu behar lukete eta Nazio Batuen Erakundearekin baliabideak lehenetsi eta esleitu genero eraldaketarako esku hartzei zuzendurik eta, bestetik, politikak, lan esparruak eta martxan jartzeko plan zehatzak garatu behar lituzkete beste gobernu batzuekin elkarlanari helduz eta Pariseko helburuei atxikirik, agenda hau betetzen joateko.
7. Sektore pribatuak indarkeriarik eta ustiaketarik gabeko genero lan eremu berdintzaleak sustatu behar lituzke eta bere enpresa erantzukizun soziala barne-biltzaile den gizarte aldaketarantz zuzendu.
8. Komunikabideen eta aisialdirako industrien papera da ohiko genero araei eutsi eta indartzea bereizkeria sortuz; paper hau berraztertu eta aurre egin behar zaio arau horiei bestelako aukerak eskaintzen zaizkielarik.
9. Aldebiko finantza erakundeek baliabideak genero berdintasunarekiko eta gizarte zuzentzarekiko programa barne-biltzaileen sustapenean erabili behar lituzkete, legedian eta politiketan aldaketak proposatuz eta finantza erakundeen artean sinergiak garatuz.
10. Nazio Batuen Erakundeek esparru hauetan lidergoa hartu behar dute kideak die estatuak euskarrituz era berritzaile eta eginkorren genero berdintasun legea burutu dezaten, gizarte mailan eraldatzailea izango dena, politikak eta programak gara ditzaten, agentzien arteko koordinazioa barne, One United Nations -en proposamenean jaso dagoen arabera.

Sinposio honetan bildu garen pertsonok zin dagigu "Emakumeenganako indarkeria deuseztatzeko Bat Eginik -eko Idazkaritza Orokorren kanpaina(2008-2015-)" -ren deiarri erantzungo diogula gure energiak, sareak eta elkarteak bultzatzeko gizonaek, mutikoen eta beren komunitateak nazioarteko mobilizazio mailara eramateko, izurrite hau gerarazteko eta aurrezaintzeko.

Dei egiten diegu gobernuari, Europar Batasunari, GKE -ei, banakoei, sektore pribatuari... konpromisoak eta baliabideak areago ditzaten indarkeria eta bereizkeriazko maskulinitateen bertsioak iraultzeko lanera gizonaek eta mutilak erakartzeko eta baita gizonaek eta mutikoen genero injustiziaz gainditzeko beren rol baikorra eta beren ekarpena aitortzeko ere.

Honako pasarteak ikus:

Kairo-ko Ekintza Programaren 4.11, 4.24, 4.25, 4.26, 4.27, 4.28, 4.29, 5.4, 7.8, 7.37, 7.41, 8.22, 11.16, 12.10, 12.13 eta 12.14.a eta Populazioari eta Garapenari buruzko Asanblada Orokorreko hogeita batgarren saio bereziko emaitzetako 47, 50, 52, eta 62. pasarteak.

Gizarte Garapenerako Mundu Ganberaren Ekintzarako programako 7, 47 eta 56. pasarteak eta Gizarte Garapenerako Iniziatiba Aurreratuei buruzko Asanblada Orokorreko hogeita laugarren saio bereziko emaitzetako 15, 49, 56 eta 80. pasarteak.

Beijingo Ekintzarako Plataformako 1,3,40,72,83b, 107c, 108e, 120 eta 179. pasarteak.

"Krisi Globala Ekimen Globala " izeneko VIH_IHESari buruzko Konpromisoaren Adierazpeneko 47. pasarteak.

Xabier Odriozolak ingeleratik euskarara emana, ON:GIZ Berdintasunaren Aldeko Elkarteko kidea (ongizelkarteak@yahoo.es), Euskal Herrian, 2009-ko urriaren 12an.